



Trebakuntza 2009/06: ADITZAREN NOMINALIZAZIOA

Gaztelaniaren eraginez, azken urteotan sarri ikusi ditugu administrazioko zein bestelako testuetan aditzak nominalizatuta. Joera horrek mezua ilundu baino ez du egiten, eta ahal dela, aditza bere horretan uztea komeni da; hau da, izen bihurtu gabe. Ikus ditzagun adibide batzuk:

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Azkeneko batzarreko aktaren irakurketa eta onespena.*
2. * *Kale horren izendapenaren aldaketari onespena eman zioten zinegotzi gehienek.*
3. * *Hurrengo hauteskundeetan alkateen aukeraketak egingo dira.*
4. * *Behin eta berriz eskatzen diote garbitzaileari kaleko garbiketa-lanak goizean goiz egiteko.*
5. * *Egin beharrekoak: argazkien digitalizazioa, deskribapena eta sailkatzea.*
6. * *Kiroldegiko instalazioen erabileran inolako apurketarik gertatuz gero antolatzaileen erantzukizuna izango da.*
7. * *Honen bidez jakinarazten dizut bideo-proiektore baten erosketa egin dela.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Aditza izen bihurtzerakoan atzizkia eransten diogu (-KETA, -PENA...). Baina, mezua euskaraz ulergarriagoa eta jatorragoa izateko, hobe da aditza bere horretan uztea. Beraz, beldurrik gabe kendu atzizkia izenari eta erabili aditza.

1. Ad. Azkeneko batzarreko **akta irakurri/irakurtzea eta onetsi/onestea**.
2. Ad. **Kale horri izena aldatzea onetsi** zuten zinegotzi gehienek.
3. Ad. Hurrengo hauteskundeetan **alkateak aukeratuko** dira.
4. Ad. Behin eta berriz eskatzen diote garbitzaileari **kaleak goizean goiz garbitzeko**.
5. Ad. Egin beharrekoak: **argazkiak digitalizatu, deskribatu eta sailkatu**.
6. Ad. Kiroldagiko **instalazioak erabiltzean ezer apurtuz gero** antolatzaileek erantzun beharko dute.
7. Ad. Honen bidez jakinarazten dizut **bideo-proiektore bat erosi dugula/dudala/dutela**.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMako teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org